



Practicum II

Gida

Gizarte Hezkuntzako Gradua

AURKIBIDEA:

1. TESTUINGURUA	4
1.1 PRACTICUMAREN AURKEZPENA	4
1.2 PRACTICUMAREN HELBURUA ETA XEDEA	6
1.3 PRACTICUMEN IKASKUNTZA ARLOAK	6
1.3.1. Prestakuntza mintegiak: ikasleen topaketak profesionalekin	7
1.3.2 Ikasleen parte-hartze aktiboa hezkuntza-erakundeetan	7
1.3.3 Praktika aztertu eta horren jarraipena egiteko mintegiak	7
1.4. PRAKTIKA-ALDIAN ZEHAR DAUDEN EGITEKO ETA ERANTZUKIZUNAK	7
 2. PRACTICUM II EGITEKO ORIENTAZIOAK	 9
2.1 PRACTICUM II ARENGAITASUNAK	9
2.2 EDUKIEN DESKRIBAPEN LABURRA	9
2.3 PRACTICUM IIAREN GARAPEN FASEAK	10
2.4 EBALUAZIOA	11
 3. BIBLIOGRAFIA	 13
 ERANSKINAK	 14
BEHAKETA EGITEKO ETA OHARRAK HARTZEKO GIDAK	14
I. Zer pentsatua ematen dizuten beste kontu batzuk idazteko gida.	14
II. Praktika-aldian datuak jasotzeko behaketa-gida	15
III. Ikasleek euren burua ebaluatzekeko gida	16
IV. Lan-proposamena eta tutoretza-prozesuaren ebaluazioa egiteko gida	17
V. Prestakuntza proiektua.....	18
 ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKO ETARAKO ARAUAK	 20

Dokumentu hau Practicum eta GrAL batzordeak egin du, Gizarte Hezkuntzako Practicum arloko lantalde akademikoak hain zuzen ere.

2020-2021 ikasturte honetan, gida honi beste dokumentu bat erantsiko zaio, **jarduera-protokoloa**, Covid 19a agertokiari buruzkoa.

*"Bizitza zoriontsu bat ez datza absentsian
baizik eta zailtasunaren domeinuan".*

Hellen Adams Keller

*"Euskararen alde gauza asko egiteko prest gaude.
Gure esku dago garrantzitsuena: hitz egitea".*

Bernardo Atxaga

*"Agur –esan zuen azeriak-. Hona hemen nire sekretua.
Oso erraza da: bihotzaz baino ez da ondo ikusten.
Funtsezkoa ezin da begiz ikusi".*

Antoine de Saint-Exupéry

1.TESTUINGURUA

1.1 PRACTICUMAREN AURKEZPENA

Gida hau Gizarte Hezkuntzako Graduan Practicum II egin behar duten ikasleentzako da. Lehenengo atalean Practicumari buruzko ohar orokorrak aurkituko dituzu eta ondoren, zure praktika-aldiari ahalik eta probetxu handiena ateratzeko gomendioak.

Praktikak uztailaren 15eko 13229/2011 Errege Dekretuan oinarritzen dira. Hain zuzen, Dekretu horrek ezartzen ditu Gizarte Hezitzaile Graduaren titulu ofiziala eta berori lortzeko ikasketa- planen jarraibide orokorrak; era berean, espezialitate bakoitzeko irakasgai ardatzak ere arautzen ditu. Honako agiri hauek ere kontuan hartu beharrekoak dira: 592/2014 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, unibertsitateko ikasleen jardun akademikoa arautzen duena; EHUko Kudeaketa Akademikoaren Araudia, IX. kapituluan, 72. artikuluan, Graduako Practicumaren oinarritzko alderdiak zehaztu eta antolatzen dituena; eta Ikastegiko Batzarrak onarturiko Gizarte Hezkuntzako Graduako Practicumaren Araudi orokorra ⁽¹⁾.

Ikasketa plan honetan indartu egin da praktikek hasierako prestakuntzan duten garrantzia eta, hala, 42 ECTS kreditu esleitzen zaizkio jarduera horri: 12 kreditu Practicum I eta IIan, eta 18 kreditu Practicum IIIan. Practicum Ia 5. moduluan egiten da, eta IIa eta IIIa, berriz, 7. moduluan.

	Ikasturtea	Modulua	Kredituak
PRACTICUM I	3	5	12 ECTS
PRACTICUM II	4	7	12 ECTS
PRACTICUM III	4	7	18 ECTS

Bilboko Hezkuntza Fakultateko Praktiketako Dekanordetza eta Idazkaritza dira Practicuma kudeatzeko organoak, eta beroriek arduratzen dira praktika-aldiari loturiko izapideak egiteaz, edota berari loturiko zalantzak edo arazoak ebazteaz ⁽²⁾.

Ezinbestekoa da Dekanordetza horren eta Praktiketako Batzordearen arteko koordinazio lana, kontuan izanik, bestalde, batzordea irakasleekin (praktiketan parte hartzen duten irakasle-tutoreekin) batera aritzen dela lanean praktikak hobetzeko proposamenak lantzeko.

(1) Practicumeko arautegia kontsultatu
(Fakultateko webgunean Practicumeko atalean ikusgai)
(2) Praktiketako Dekanordetza Bilboko Hezkuntza Fakultatea
Tel: 946 01 4640 / 946 01 4631
Sarrienaauzoaz/g 48940. Leioa (Bizkaia)
Posta: bhf.practicum.dekanordea@ehu.eus

1.2 PRACTICUMAREN HELBURUA ETA XEDEA

Kontuan izanik lanbidearen munduan (esku-hartzeko esparru eta erakunde batean) murgiltzea dela Practicumaren helburua, praktika-aldian gizarte-hezitzaileen eginkizun profesionalak garatzeko lan egingo da; hau da, diagnostikoa, plangintza, esku-hartzea, ebaluazioa, berrikuntza, ikerkuntza eta trebakuntza.

Gizarte-hezitzaileen hasierako prestakuntzan, honako alderdi hauek hartzen ditu Practicumak:

1. Practicumak lanbidean txertatzeko prozesua bultzatzen du, eta unibertsitatearen eta lan- munduaren arteko lotura-eginkizuna du. Practicumean, ikasleak lanbide-kulturan sartzen dira eta, horri esker, gizarte-hezkuntzako profesionalen lan-moldeak eta nolakotasunak ezagutzeko aukera dute. Profesional-taldeetan lan egiten denez, ikaslea "praktiketako profesional" bihurtzen da eta, horri esker, beraren potentzialtasunak eta zailtasunak ikusteko aukera dago. Hezkuntza-testuinguru desberdinetan esku hartzen denez, profil profesionalen alderdi desberdinak nahiz komunak identifikatzeko aukera dago. Practicuma da prestakuntzaren esparruan profesionalizaziotik hurbilen dagoen osagaia: teoria eta lanbide- ezagutza bateratu, bi esparruen arteko kontrastea egin, eta zientzia-ezagutza oinarritutako ezagutza profesionala eraikitzen laguntzen du.
2. Practicuma teoriaren eta praktikaren arteko lotura denez, prestakuntza teoriko-praktikoan egindako ikaskuntza testuinguruan kokatzeko aukera eskaintzen du. Izan ere, esku-hartzeen ereduak, antolaketa- eta kudeaketa-ereduak, hezkuntza-harremanetarako ereduak eta abar aztertu eta kontrastatzen ditu, arazo eta egoera profesionaleri buruz hausnartu eta era kritikoa ebatzi ahal izateko.
3. Practicuma komunikazio-prozesua denez, ikasleei aukera ematen die egiten, sentitzen eta galdetzen dutenari buruzko hausnarketak partekatzeko, eta hezkuntzaren errealitateari buruzko gogoeta egiteko bide da oinarri hartuta eraldaketaren ikuspegia.
4. Errealitate profesionala aldakorra eta konplexua izanik -etengabe aldatzen den gizartearen premiei erantzun behar baitie- Practicuma ikasleak errealitate hori ezagutzeko bide da, baina ezagutzeko ez ezik, errealitate horretan murgiltzeko bide ere bada. Horri esker, ezagutza profesionalaren baliabide konplexuagoak eskuratuko ditu, eta gizarteko eta hezkuntzako errealitate berrietara egokitzeko prestatuko da.

1.3 PRACTICUMEKO IKASKUNTZA ARLOAK

Ikasleak eginez egiten ikasten duelako mitoa berriz aztertu behar da edo, behintzat, ñabardura batzuk ezarri behar zaizkio. Eginez ikasi baino, ikasleak egiten duena aztertuz eta horri buruz hausnartuz ikasten du. Horri esker jabetuko da nola eta zergatik egiten dituen gauzak, zer beste aukera egon daitekeen, eta zer ondorio izan ditzaketen. Hausnarketa eta ekintza batera garatu behar dira, baldin eta jokabide egokiak, hau da, zientzian oinarritutako jokabideak, garatzen lagundu nahi badugu. Horrek esan nahi du praktikan landu behar dela, baina bertan agertuko diren kontraesanak eta ezagutza-mailako arazoak azaleratzeko moduan, eta hartzen diren erabaki praktikoek hezkuntzan, gizartean eta politikan izango dituzten ondorioak aztertzeko moduan.

Hausnarketa da ekintza bidezko ikerkuntzara eramango gaituen ikaskuntza-metodo aktibo nagusia. Ekintza bidezko ikerkuntzak, bere aldetik, ekintza praktikoan agertzen diren gaiei irtenbidea eman nahi die, ikasleek ikaskuntza sakona eskuratu eta

ikasleengan jarduera profesionaleko aldaketa-egoerak sustatzeko.

Bestalde, ezagutza lankidetzaren bidez eraikitzeak potentzial oso handia dauka, eta horrek jarraian azalduko ditugun ikaskuntza arloetan bere isla eduki nahi du:

1.3.1. Prestakuntza mintegiak: ikasleen topaketak profesionalekin

Ikasleek prestakuntza-mintegi batzuetan parte hartuko dute; esku-hartzearen xede diren taldeen ezagutzan zentratuta egongo dira, eta era berean, gizarte eta hezkuntza arloko hainbat

esku-hartze eta arlo motarekin daude erlazionatuta. Mintegi horietan erakundeetako tutoreek hartuko dute parte eta talde eta lan arlo horien gaineko ezagutza teoriko eta praktikoa ekarriko dute. Aldez aurretik, talde bat hautatuta egongo da, eta hortik abiatuta, esku-hartze eremu jakin bati gehituko zaizkio.

1.3.2 Ikasleen parte-hartze aktiboa hezkuntza-erakundeetan

Garrantzitsua da ikasleak aukeratutako erakundeetan parte hartze aktiboa izatea eta bertako egoeraren azterketa bat egitea, komunitatearen ikuspuntutik. Errealitate horretaz egin duen azterketan oinarrituta, erakundeetan egiten diren hezkuntza eta gizarte jardueretan, programetan edo proiektuetan hartuko du parte.

1.3.3 Praktika aztertu eta horren jarraipena egiteko mintegiak

Mintegi horien helburua hau da: hainbat esparrutan praktikak egiten dituzten ikasleek, azterketa hausnartuaren bidez, gizarte- eta hezkuntza-errealitate desberdinetako ikuspegiak eta bertan gizarte-hezitzaileak barneratzen dituzten eginkizunak partekatze eta kontrastatzeko eremua irekitzea, prestakuntza-premietan nahiz teoriarik eta praktikan sakontzeko. Lanerako metodologia horren bidez, lanerako estrategia erabilgarri bat aurki dezake, gorabeherak gertatzen direnerako.

1.4. PRAKTIKA-ALDIAN ZEHAR DAUDEN EGITEKO ETA ERANTZUKIZUNAK

- Practicumeko faseak ezagutu eta horietan parte hartzea (informazio-bilerak, plazen banaketa, memoria ematea...), eta egoki betetzen laguntzea.
- Irakasgaiaren programatutako mintegi, jardunaldi eta jardueretara joan eta parte hartzea.
- Erakundeak proposaturiko zereginetan parte-hartze aktiboa izatea.
- Erakundeak ezarritako bertaratze eta puntualtasun irizpideak betetzea eta araudia errespetatzea.
- Ikaskuntzan zehar jarrera positiboa izatea.
- Praktika-aldian garatutako jardunari lotuta, konfidentzialtasuna eta lanbidearen kode deontologikoan dauden gainerako jarraibide etikoak errespetatzea.
- Esleitutako tutoreari laguntzea, Unibertsitatekoari nahiz Erakundekoari.
- Practicumean parte hartzen duten eragile guztiekin errespetuzko harremana izatea.

	AURREZ AURREKOAK			EZ AURREZ AURREKOAK	GUZTIRA
	Erakundeak	Prestakuntza mintegiak	Mintegiak: Praktikaren azterketa	Norberaren lana	
Practicum II	210	3	9	78	300

2. PRACTICUM II EGITEKO ORIENTAZIOAK

2.1 PRACTICUM II ARENGAITASUNAK

Garrantzitsua da praktiken hasierako aldi honetan lortu nahi diren gaitasunak ulertu eta ezagutzea. Ikasleek honako gaitasunak har ditzaten espero da:

1. Esku-hartze profesionala gizarte hezkuntza arloan, kontuan izanda diziplina desberdinetako oinarri teoriko eta praktikoak eta Practicum II laren garapenean metatutako esperientzia, erantzukizun eta oinarri etikoetatik.
2. Ezagutza lankidetzan eraikitzea, "jakitearen" eta "egiten jakitearen" arteko loturak ezarriz, betiere praktika etengabe aztertzearen bidetik.
3. Analisi kritiko eta gogoeta egitea, banakakoa eta taldean, Gizarte Hezkuntzak biltzen dituen testuinguru eta arlo berezitueta lan profesionalari eta kulturari buruzkoa.
4. Behaketan eta diagnostikoan oinarrituta, gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeari dagokionez hobetu litezkeen elementuak antzematea.
5. Erakundeko taldeetan lankidetzan aritzea eta parte hartzea.

2.2 EDUKIEN DESKRIBAPEN LABURRA

Practicum II gidaren bidez lan munduan bigarren aldiz murgiltzen da ikaslea eta arlo sozioedukati bo berri bat ezagutzen du; horretan, errealitate zehatz baten gaineko esku-hartzearen bidez, honakoak aztertzen ditu: gizarte erakunde baten ezaugarriak, erakunde horren lanaren hartzaile diren taldeak, profesionalen taldea, ekintza sozioedukati boak, proposatutako proiektuak... Practicuma, beraz, ikasleen, unibertsitateko irakasleen eta irakasle partaideen arteko lankidetz a jarduera da.

Practicum II an helburu bikoitza planteatzen da:

A.- Hezkuntza arloko testuinguru berri bat eta Gizarte Hezkuntzako profesionalak hor garatzen dituzten funtzioak ezagutzea, prozesuen elementu desberdinen arteko interakzio eta konexioak aztertuz; hauen nabarmenduz:

- Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzearen ezaugarriak (testuingurua, eskaintzen eta eskatzen diren ekintzak, herria eta metodologia profesionala).
- Gizarte Hezkuntzako proiektu eta programa, erakunde eta zerbitzuen inguruko ezagutza, horietan parte hartuta.
- Praktika eta garapen profesionalari buruzko hausnarketa.
- Garapen profesionalan elementu berritzaileak identifikatzea, ikuspegi kritiko batetik.

B.- Modu arrazoituan eta argudioak emanez, Practicum I eta IIaren esperientziak kontrastatzea, praktika profesionalaren inguruko ezagutza prestakuntzan sakontzeko helburuarekin.

2.3 PRACTICUM IIAREN GARAPEN FASEAK

Practicum IIaren gaitasunak lortzeko hainbat fase behar dira; lehenik eta behin praktikan barneratzeko fasea prestatzeko eta horren gaineko hausnarketa egiteko, unibertsitateak baimendutako jarraipenarekin, eta gero ebaluazio fasea, azken hausnarketa eta lortutako ezagutzaren zabalkuntza:

- A) Erakundera joan aurretik, tutore bakoitzak berari esleitutako ikasleekin lan-saio bat egingo du, Practicumaren inguruko arau- eta antolakuntza-kontuak argitzeko, practicumeko lan- plana kontrastatzeko, eta lan-eremua prestatzeko. Saio horretarako, garrantzitsua da ikasleek Practicum IIaren Gida hau irakurrita izatea. Ikasleei beraien lan-konpromisoa zehazten duen agiria (ikaslearentzako, unibertsitatearentzako eta erakundearentzako kopiak), Prestakuntza proiektuaren eredua (V eranskina) eta erakunde laguntzailearentzako aurkezpen-gutuna banatuko zaizkie.
- B) Practicum-aldian zehar, ikasleek erakundeak proposaturiko lan-dinamikan parte hartuko dute, eta aldi berean mintegi-saioak egingo dituzte unibertsitatean. Jarraian, ikasleek modu presentzialean egin beharko dituzten jarduerak azalduko ditugu, labur:

a. **Erakundean** (Eranskina: I eta II Gidak):

- i. Esperientziari buruzko informazioa jaso. Garrantzitsua da mintegietan aztergai eta eztabaidagai izan daitezkeen esperientzien berri jasotzea (gorabehera kritikoak, egoera gatazkatsuak, kasuak...), horrela, partekatutako ikaskuntza-prozesua bultzatuko delako.
- ii. Proposatutako zereginetan era aktiboan eta konpromisoaz jardutea.

b. **Unibertsitatean**

- i. Praktikaren analisirako 3 mintegietara joan eta parte hartzea. Helburua zera da: arlo eta erakunde desberdinetan izandako esperientziak partekatu, kontrastatu eta aztertzea, hezkuntza arloko praktikaren ikuspegitik.
- ii. Memoria txostena: Ikasle bakoitzak, gainera, Practicum II-ari buruzko memoria entregatuko dio bere tutoreari, 20 eta 25 folio bitartekoa (portada, aurkibidea eta bibliografia kenduta. 1,5eko lerro-arte eta 12 tamainako Arial edo Times New Roman letra motarekin).

Erakundearen ezaugarriak sartuko ditu bertan, Practicumean izandako esperientzia nabarmenduz: behaketa, sentsazioak eta sentimenduak, arazoak eta horiei ekiteko moduak, elementu adierazgarrienak eta hezkuntza arloko analisia, jasotako ikaskuntzen balorazioa etb. Helburu honekin hurrengo **aurkibidea** proposatzen dugu:

1. AZALA
2. AURKIBIDEA (Datuak: ikaslearen izen-abizenak, NANA, practicumaren garatu duen gradua, ikastetxea edo erakundea, ikastetxeko tutorearen izena, unibertsitateko tutorearen izena).
3. SARRERA (memoriaren aurkezpena).
4. PRAKTIKEN TESTUINGURUAREN DESKRIBAPENA (instituzioa, erakundea, programa, entitatea).

- 4.1. Errekurtso soziohezitzailearen xede orokorra
- 4.2. Erabiltzaileen profilak
- 4.3. Profesionalen profila eta funtzioak testuinguru horretan (zehazki praktikak egiten dituzun erakundekoak. Profesionalak: gizarte hezitzaileak, integratzaileak, psikologoak...)
- 4.4. Gizarte hezkuntzako lanaren eremuak. Baliabideko kolektiboekin lantzen diren gaiak.
- 4.5. Garatzen diren aktibitateak eta/edo programak
5. KOORDINAZIOA KOMUNITATEAN DAUDEN GIZARTE ERREKURTZOekin (deribazioak beste errekurtsoetara, kanpoko programekin partehartzea).
6. GOGOETA ETA HAUSNARKETA KRITIKOA IKUSPUNTU BERRITZAILERATIK (teoriak, metodoak eta hausnarketa praktikatik abiatuta, graduan ikasitako teoriarekin oinarrituz eta erlazionatuz).
7. GAUZATU DITUZUN PRAKTIKEN INGURUKO HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Batez ere, ikaskuntza esperientziari buruzko gogoeta hartuko da kontuan, deskripzioa bera baino.

2.4 EBALUAZIOA

Prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiek Practicumaren lorpenak eta zailtasunak baloratzeko aukera izatea da ebaluazioaren helburua.

Ikasleen prozesua eta errendimendua ebaluatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Ordu-tegiak egoki bete ote dituen.
- Erakundearekiko ardura- eta inplikazio-maila.
- Zereginak hartzean adierazi duen ekimen-maila.
- Lan-bileretan parte hartzeko, oharrak nola prestatu dituen.
- Lan-bileretan sortutako ekarpenak nola jaso dituen; erakundean egindako lanari eta gizarte-errealitateari buruzko hausnarketak.
- Topaketen harira, zer-nolako hausnarketak, galderak eta planteamenduak egin dituen.
- Azterketaren sakontasuna eta amaierako kontakizunaren barruan jasotako hausnarketa ("memoria").

Kontu hartzeko tresnak:

Ikasleak praktika-aldia egin duen erakundeko profesional-tutoreak emandako ebaluazio- txostena	(%40)
Unibertsitateko tutoreak egindako balorazioa: ▪ Mintegietan parte hartzea (% 20) ▪ Txostenean azaldutako esperientziaren kontakizuna (% 40)	(%60)

Horrez gain, hurrengo oharrak kontutan hartzekoak dira:

1- Nahitaezkoa da ebaluazio atal guztiak gaindituta izatea ikasgaia gainditzeko.

2- Praktiketako alde guztiak gainditu ezik ohiko deialdian emaitza gutxiegi izango da. Eta zenbakizko emaitza ez gainditutako atalaren, edo atal hauen emaitzen batezbestekoa, izango da (beti ere 5 baino gutxiago). Egonaldia gaindituz gero, baina praktiketako azken txostena, memoria edo lan idatzia, dagokion eran edo/eta datan aurkezten ez denean, ohiko deialdiko azken nota "ez aurkeztua" izango da. Ikasgaia urte akademiko horretako ez-ohiko deialdian gainditzeko ez bada ikaslea praktika ikasgai hori osorik errepikatu beharko du eta horretarako berriz matrikulatu beharko da.

Plagioa

Plagioari dagokionez, ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egin balitz bezala. Ikasleak zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada UPV/EHU ko Etika Akademikoari buruzko protokoloa beteko da. (<https://www.ehu.eus/documents/2100129/0/6.-+a%29++Protocolo+plagio++EUSK.pdf/9305b6c7-919a-97d4-aa66-8564fb728502>)

Ebaluatzeko aldiak

Gida honetan garatutako Lan-proposamenaren ideia-ardatzekin bat, ebaluazio-sistema prozesu etengabea izango da, eta ikasleengan sumatzen den bilakaera izango da funtsezko elementua. Ebaluazioaren barruan tutoretza-prozesu bat egongo da, Unibertsitatean eta erakunde laguntzaileetan egitekoa. Gainera, mintegian ebaluazioari eskainitako lan-saio berezia izango da. Talde bakoitzak zehaztuko du noiz izango den hori.

Azken kalifikazioa:

Praktika-aldia amaitu ondoren emango den kalifikazioak ikasleek prestakuntza fase horretan eskuratutako konpetentziak islatuko ditu, ahalik eta modu ekitatiboenean. Ebaluazioa prozesu partekatua delako ideian oinarrituz, Practicumeko protagonistek eurek (ikasleak, unibertsitateko tutoreak eta erakundeko tutoreak) hartuko dute parte kalifikazioak zehazteko prozesuan.

3.BIBLIOGRAFIA

- Acción Pro Derechos Humanos Fundazioa. **Cuadro de normas y mecanismos para la Protección de los Derechos Humanos**. Hemendik aterara: www.derechoshumanos.net/derechos/.
- Agiri profesionalizatzaileak. **Código deontológico, funciones y competencias del educador y de la educadora social**. Eskuragarri hemen: www.eduso.net/archivo/index.php?c=27;
http://www.ceespv.org/web/documentos_pro_view.php?categoria=68.
- Arabako Foru Aldundia (2005). Guía de actuación para los servicios sociales dirigidos a la Infancia en el territorio Histórico de Álava. **Gasteiz**: Arabako Foru Aldundiaren argitalpen zerbitzuak. Gizarte gaietakosaila.
- Bizkaiko Foru Aldundia (2005). Manual de intervención en situaciones de desprotección infantil. Bizkaiko Foru Aldundia. Diputación Foral de Bizkaia- Gizarte Ekintza Saila. Gizarte Ekintza Saila.
- Cabrera, P(zuz), Magesini, Geta López, J.A. (2002). Un techo y un futuro. **Buenas prácticas de intervención social con personassin hogar**. Madril: Icaria Editorial
- FEAPS (2006). ¿Qué es una buena práctica? Hemendik aterara: www.feaps.org/calidad/buenas_practicas_que.htm
- FEAPS.(2000) (Manuales de buenas prácticas para diversos ámbitos). Eskuragarri hemen: www.feaps.org/archivo/publicaciones-feaps/libros/manuales-de-buenas-practicas.html
- IMSERSO (2009). Guía de buenas prácticas en residencias de personas mayores en situación de dependencia. **Guía 2009. Transparencia y Buenas Prácticas de las ONG**. Hemendik aterata: www.imsersomayores.csic.es/documentacion/biblioteca/registro.htm?id=57514
- Judson, S.(2000). Aprendiendo a resolver conflictos en la Infancia. **Manual de educación para la paz y la no violencia**. Madril: Libros de la Catarata.
- Martín Cuadrado, Ana M^o; Gallego Gil, Domingo, eta Alonso García, Catalina. (2010) El educador social en acción: **de la teoría a la praxis**. Madril: UNED eta Ramón Areces argitaletxea. ISBN 978-84-8004-983-2. 332 orrialde.
- RES, **Revista de Educación Social**; aldizkari digitala da, Consejo General de Colegios de Educadoras y Educadores Sociales (CGCEES) delakoak argitaratua. Aldizkaria EDUSO proiektuaren parte da eta Gizarte Hezkuntzaren Atarian dago eskuragarri: res@eduso.net
• www.eduso.net/res. ISSN 1698-9007.
- Sánchez-Valverde, Carlos (2013). Informe y confidencialidad en educación social. **Educación social: Revista de Intervención Socioeducativa**. 55, 146-163.
- Secretariado Gitano Fundazioa (2013) Guía para trabajar con familias gitanas el éxito escolar de sus hijos e hijas. Madril: Secretariado Gitano Fundazioa
- Ubieto, José Ramón. (2012) La construcción del caso en el trabajo en red. **Teoría y Práctica**. Barcelona UOC. ISBN. 978-84-9788-801-1. 241 orrialde

ERANSKINAK

BEHAKETA EGITEKO ETA OHARRAK HARTZEKO GIDAK (I-IV ERANSKINAK)

Practicumak hausnarketa-prozesu bat dakar, esperientziaren kontakizunarekin amaituko dena. Kontakizun horrek erakundearen egoeraren azterketa bat egiteko beharrezko elementuak barne hartu behar ditu. Bizipenetan oinarritutako kontuak, egoera pertsonala oinarri bezala dutenak, esperientziari buruzko amaierako kontakizunean islatuko dira.

Aurkezten dizkizugun "giden" helburua lan-sistema posible bat erraztea da. Berdin balioko du bururatzen zaizun besteren batek eta hobeto identifikatzen zaren batek, modu koherentean. Gida horien zatiak erabil ditzakezu, edo hori lagungarri bazaizu, zehatz-mehatz jarraitu ditzakezu.

I. Zer pentsatua ematen dizuten beste kontu batzuk idazteko gida.

ADIBIDEZ, hezitzaileei arretaz entzuten diedanean, prestakuntzako mintegietara joaten naizenean, erakunde bati buruzko informazioa jasotzen dudanean, gainerako kideekin mintegian partekatu eta eztabaidatzen dudanean, beste pertsona, egoera edo hedabide batzuekin harremana dudanean... neure burua kokatuko dut, honako gauza hauetan pentsatuz:

Zer gustatu zaidan eta zer ez. Zerk harritu nauen. Zerk iradoki, blokeatu, kezkatu nauen. Zerk eragin dizkidan zalantzak edo galderak. Zeri buruz eztabaidatu nahi nukeen. Zeri buruzko informazioa jaso nahi dudan. Nola sentitu naizen egoera horretan. Zer ez dakidan interpretatzen. Hainbat gauzari buruzko iritzia. Zer egiten ikasi behar dudan. Zer bururatu zaidan. Zer egiten zaidan erraza edo zaila. Zeren zergatia ulertu dudan. Zeri buruz hitz egin behar dudan. Zeri iritzi diodan interesgarria. Zeri buruzko artikulua interesgarria aurkitu dudan. Zeri buruz irakurri nahi dudan. Telebistan ikusitakoak zer iradoki didan. Irratian entzundakoak zer pentsarazi didan. Zer azaldu didaten. Zer aztertu nahi nukeen berriro. Zer prestatu dudan. Taldean zer esku-hartze izan dudan. Zer sentitu dudan. Zer ikusi dudan. Zer egin dudan erraz eta zer zail. Zer ez nuen espero. Topaguneetan izandako jarrera dela-eta, zer pentsatu dudan. Zer egoeratan ez dudan jakin zer egin. Zer erantzun eman dudan. Lanaren aurrean zer aukera dudan. Gogoan izan gizarte- eta hezkuntza-errealitatearekin kontaktuan zauden aldian laguntzeko gida dela hau: errealitate hori nolakoa den, bertan nola lan egiten den, zer zailtasun dituen, zailtasun horiek nola ebazten diren... jakiteko hainbat erregistro izatea da asmoa. Ez dezagun ahaztu, beste edozein gidak bezala, honek ere ez dituela jasotzen Gizarte Hezkuntza alorreko lanaren errealitatea osatzen duten alderdi guztiak. Datuak biltzeko eta lan-esparru hori behatzeko bide posible bat zehazten du; hori baino ez. Horregatik, beste adierazle batzuei adi egon beharko zara (idazkiak, liburuxkak, komentario ez formalak, landa-laneko oharrak, inpresio pertsonalak...). Horietatik ideiak hartuko dituzu edo hausnarketarako bidea emango dizute gizarte hezkuntzaren egitekoari buruz eta zuk zeuk arlo profesional horretan duzun egitekoari buruz. Kontuan izan behar dugu, halaber, gizarte arloari buruzko datuak jasotzeko ez dagoela horri buruz galdetzea bezalakorik. Halere, galderak zehazteko unean, nahi izanez gero, gida hau erabil dezakegu landuko ditugun eremuen erreferentzia gisa.

II. Praktika-aldian datuak jasotzeko behaketa-gida

LAN ESPARRUAREN EZAUGARRIAK

➤ **ERAKUNDEA/ELKARTEA/PROGRAMA/ENTITATEA:**

- Nolakoa da lan-esparrua (nor hartzen dute, zer helburu edo asmo dituzte, zer lan egiten dute hezitzaileek) eta nolako esku-hartzea egiten dute euren jardueraren helburudiren pertsonekin (zer arreta-mota eskaintzen dute)?
- Esparru horretan ari diren profesionalak behar dituzten trebetasunak.
- Profesionalen arteko lan-moldeak (profesionalen arteko harremanak) esparru horren barruan, eta beste esparru batzuetako profesionalekin, beste Erakunde batzuekin, eta abar.
- Harremana inguruarekin: komunitatea. Zer harreman mota dute (distantzia, lankidetzat), eta zer mailatan?
- Beste erakunde, organismo batzuekiko harremana. Nazioartean, Europako Programetan parte hartzen du? Nazioarteko sareren bateko kidea da?
- Erakundearen barruko egiturak, eta antolakuntza-eredua (hierarkia, koordinazioa, kudeaketa-erak, komunikazio-prozesuak, barne-araudiak...).

➤ **JARDUERAREN XEDE DIREN PERTSONAK:** Ezaugarri psikosoziologikoak (adina, sexua, hizkuntza, gizarte-jatorria eta jatorri geografikoa...) eta berezitasunak. X

- Xede diren pertsonen prestakuntza-ekintzan duten parte-hartzea. Programan/ekintzan dagoen inplikazio-maila, parte hartzeko bideak...

➤ **ZER BALIABIDE BEHAR DA ETA ZER BALIABIDE DAGO:**

- Baliabide ekonomikoak (diru-laguntzak), giza baliabideak, eskualde-baliabideak... eskuratzeko moduak.
- Eskura dauden espazio-baliabideen eta baliabide ekonomiko, material eta pertsonalen ezaugarriak. Baliabide horiek lan-dinamikan eragiten dituzten zailtasunak eta eskaintzen dituzten aukerak.
- Zabalkunderako materialak: aldizkariak, liburuak, zirkularrak, publizitatea... Hedabideen erabilera (prentsa, irratia, TB, zinema, Internet...).

➤ **ESKU-HARTZEKO PROZESUAK PLANIFIKATZEKO, ABIAN JARTZEKO ETA EBALUATZEKO PROZESUAK:**

- Esku-hartzearen xede diren pertsonen arreta zuzena eskaintzen ez zaienean, zertan ematen den lan denbora eta zer jarduera egiten den (prestakuntza, koordinazioa,...).
- Jarduerak prestatzeko moduak (taldeak, banaka, malgutasun-maila, tokiko esparruarekiko harremana...).
- Esku-hartzearen xede diren pertsonen harremana: elkarrekintzaren nolakotasuna, harreman motak (eguneko eta asteko ordutegiak, urteko egutegiak), harreman estiloak (elkarrekintzakoa, zuzendua, zuzendu gabea), diziplina, arauak ezartzea, funtzionamendu-arau orokorrak.
- Esku-hartze prozesuaren hurbilpena: ezaugarri metodologikoak eta zereginak nahiz ekintzan bete beharreko rolak zehazteko erabiltzen diren jarraibideak.

- Ebaluazio-sistema: ebaluatzen diren alderdiak (prozesua, antolakuntza-lanak, erakundeko dinamika,...), prozesuaren ezaugarriak, erabilitako teknikak, ebaluatzen den uneak (diagnostikoa, jarraipena, azken balorazioak), txostenak aurkeztea.
- PROFESIONALAK AUKERATU ETA PRESTATZEKO MODUA:
 - Langileak (profesionalak nahiz boluntarioak) aukeratzeko irizpideak. Irizpideak ezartzeko eta gauzatzeko arduradunak.
 - Nola lantzen dute etengabeko prestakuntza esparru horretan lan egiten duten profesionalek?
 - Nola lantzen dituzte boluntarioak prestatzeko sistemak (finantzazioa, edukiak, arduradunak, prestakuntza-aldiak, egiten duten lanaren jarraipena)?
- IKERTZEKO PROZESUAK ESPARRUAN ETA ERAKUNDEAN:
 - Ikertzen ari diren alderdiak. Horretarako erabiltzen dituzten azterlanak.

III. Ikasleek euren burua ebaluatzeko gida

Baliabide hau erabiliz, prestatze bidean dagoen hezitzaile gisa Gizarte Hezkuntzako alorrarekin izan duzun harremanean jarraitutako prozesuari buruzko zure pertzepzioa jasotzen ahalegindu behar duzu. Baliabidea lehen unetik erabiltzeko aukera duzu; izan ere, hasiera-hasieratik erabil dezakezu, zeure prozesua behatu, lan-jokabideak zuzendu eta ildo egokiak finkatzeko. Beraz, zer egiten duzun eta nola egiten duzun aztertu eta birbideratzen lagunduko dizun tresna bat eskaintzen dizugu. Gainera, ebaluazio-saioan parte-hartze aktiboa izaten ere lagun diezazuke.

1. Zer pertzepzio duzu gizarte-errealitatearekin izan duzun harremanari buruz, honako enuntziatu hauetako bakoitzean? (Idatzi enuntziatu bakoitzean zer iritzi duzun):
 - Prestakuntza-esperientziari buruzko datuak jasotzeko ohitura.
 - Datuak egunero sistematizatu eta horien inguruan hausnartzeko izan dudana dizi-plina.
 - Nola prestatu ditudan errealitate profesionalaren ezagutzan sakontzeko aukera emango zidaten galderak.
 - Bildutako materiala egoki prestatzea, mintegiko saioetan aurkeztu eta kontrastatzeko.
 - Mintegiko saioetan eta profesionalekin izandako topaketetan beste gizarte-errealitate batzuei eta beste lan-molde batzuei buruz jaso ditudan datuen bilketa.
 - Mintegietan izan dudana parte hartzea, ideiak, hausnarketak edota zalantzak aurkezten.
 - Ikaskideekin izan dudana jarrera, laguntzekoa ala ez, gizarte-jardunari buruzko ezagutzak sistematizatzeari buruz.
 - Ikaskideek mintegi-saioetan aurkezturiko ideiei buruzko hausnarketa, eta nola erabili ditudan errealitate profesionala hobeto ezagutzeko.
 - Mintegiko saioetan eta aukeratutako erakundeari egindako bisitetan jasotako ideiak eta ekarpenak idatziz eta era antolatuan jasotzeko ohitura.

- Iturri osagarrien bidez (hedabideak, testuak, elkarrizketa informalak...) jasotako beste gai batzuk nola erabili ditudan.
 - Erakundearekin eta Unibertsitateko tutorearekin izan dudana harremana.
 - Topagune eta mintegietan parte-hartze aktibo eta konprometitua izan dudana ala ez.
2. Praktika-aldian zehar, nola sentitu naiz?
 3. Epealdi horretan konturatu naiz honako nolakotasun/gaitasun hauek gizarte-hezitzaile lanetan lagun diezadaketela.
 4. Prestakuntza-prozesuan zehar, zailtasunak eta hutsuneak antzeman ditut niregan; honako hauek, hain zuzen:
 5. Nire zailtasunak kontuan hartuta, zertan sakondu behar dut.
 6. Oro har, zer ikasi dut prestakuntza-prozesu horren bidez (errealitatearekiko kontaktua, banakako eta taldekako hausnarketa).
 7. Nire ustez, hainbat kontu aurreko galderetan jaso gabe gelditu dira, eta azpimarratu beharrekoak dira, jarraitu dudana prozesua argitzen lagun dezaketelako. Honako hauek dira gai horiek:
 8. Jarraitu dudana prozesuan oinarrituz, honako kalifikazioa ezartzen diot neure buruari (idatz ezazu jarraian datorren espazioan, 1etik 10erako puntuazioaren bidez):

IV. Lan-proposamena eta tutoretza-prozesuaren ebaluazioa egiteko gida

Tresna honen bidez Practicumaren inguruan duzun inpresio orokorraren berri izan nahi dugu: lanerako proposamenaren eta garapenaren inguruan eta gizarte errealitatearen eremuko lan batekin izan duzun harremanaren inguruan. Mesedez, adierazi garrantzitsua iruditzen zaizun guztia, horrela hobekuntzak egiteko aukera izango dugu.

A) IDATZIZKO LAN-PROPOSAMENAREN INGURUAN:

1. Zer deritzozu Practicumerako lan-proposamenari? Adierazi zure iritzia honako aspektu hauetako bakoitzaren inguruan:
 - Prestakuntza-aldi honetarako ezarritako helburuen eta osatu den prozesu-proposamenaren arteko koherentzia.
 - Practicum honen jardueretarako ezarritako denbora-banaketa.
 - Hausnarketa egiteko, argudiatzeko eta "besteekin" elkarrizketa sustatzeko proposatu diren jardueren egokitasuna.
 - Behaketa, hausnarketa, lankidetzeta eta ebaluazioa lantzen laguntzeko eman zaizun agiriaren kalitatea eta interes praktikoa.
 - Mintegiaren egitura eta bertan erabilitako lan-sistema.
 - Aukeratutako erakundeko egoeraren azterketa egiteko proposamena.
 - Hainbat zereginen bidez, praktika profesionalari buruzko informazioa jasotzeko, horren inguruan hausnarketa eta azterketa kritikoa egiteko prozesua egituratzen duen karpeta aurkezteko proposamena.
 - Proposaturiko ebaluazio-sistema.

2. Nire iritzian, alderdi batzukaipatzeke gelditu dira, eta aipatu beharrekoak direla uste dut. Hauek dira:
- B) MINTEGI SAIOETAN EGINDAKO LANARI ETA BERTAN ESKAINI ZAIDAN TUTORETZA LANARI BURUZ:
 1. Zer iritzi duzu tutorearekin eta ikaskideekin egindako mintegi-saioei buruz? (Esan zer iritzi duzun alderdi hauei buruz):
 - Proposamena argitzea, hobeto ulertzeko.
 - Prozesuan eman diren jarraibideak eta zereginen jarraipena.
 - Mintegietan sortu den elkarrizketa hausnartzailerako giroa.
 - Pertsona guztien parte-hartzeraila.
 - Mintegiko saioen dinamizazioa.
 - Saioetan teoriaren eta praktikaren artean izan den lotura.
 - Mintegi-saioen iraupena.
 - Lan profesionalaren esparru horri buruzko ezagutza praktikoa eraiki eta kontrastatzeko lana.
 2. Nire iritzian, alderdi batzukaipatzeke gelditu dira eta aipatu beharrekoak direla uste dut. Hauek dira:
- C) HARREMANA IZAN DUDAN ERREALITATEARI BURUZ:
 1. Zer deritzozu aukeratutako erakundearekin izandako harremanari? (Esan zer iritzi duzun alderdi hauei buruz):
 - Erakundeari buruzko informazioa biltzeko, Erakundeak ni hartzeko prozesuaren unea eta ezaugarriak.
 - Eman dizkidaten materialak, agiriak edo jarraibideak, horien bidez erakundea eta beraren lan-moldeak hobeto ezagutzeko.
 - Erakundeko arduradunarekin izandako harremana eta elkarrizketa, abian jartzen dituzten prozesuak hobeto ulertzeko.
 3. Nire iritziz, alderdi batzuk aipatzeke gelditu dira eta aipatu beharrekoak direla uste dut. Hauek dira:

V. Prestakuntza proiektua



PRESTAKUNTZA PROIEKTUA

...../..... IKASTURTEA

AND./JN. (*Ikaslearen izen-abizenak*)

NAN

Ikaslea

AND./JN. (*Tutorearen izen-abizenak*)

Tutorea

AND./JN. (*Instruktorearen izen-abizenak*)Instruktorea etaren (*erakunde laguntzailea*) ordezkaria

UPV/EHUren eta erakundearen arteko hezkuntza lankidetzarako hitzarmenean ezarritakoaren arabera, alde biek honako informazio hau ematen dute:

1.- UPV/EHUK emandako ikasketak:.....

2.- Jarduerak egiteko lekua:.....

3.- Erakundeko instruktorea:

4.- Irakasle tutorea:

5.- Praktika Programaren Arduraduna (PPA) edo, hala dagokionean, tituluko praktiken arduraduna:.....

6.- Hezkuntza helburuak:

Ikasleak eskuratu beharreko oinarritzko gaitasunak, gaitasun generikoak, eta/edo zeharkako gaitasunak:

1.-

2.-

(...)

Ikasleak eskuratu beharreko gaitasun espezifikoak:

1.-

2.-

(...)

Ikaskuntza emaitzak:

1.-

2.-

(...)

7.- Egin beharreko jarduerak edo zereginak:

Egin beharreko jardueren edo zereginen deskribapena:

1.-

2.-

(...)

8.- Praktika programaren iraupena:(e)tik (e)ra (uuuu/hh/ee)

9.- Praktiken ordutegia:

10.- Orduen kopuru osoa:

11.- Sinatzaileen datuak hitzarmen honen helburu eksklusiboetarako erabiliko dira soilik. Dokumentu hau sinatzeak baimena ematen du sinatu dutenen datuak lagatzeko eta erabiltzeko hitzarmenaren helburuetarako.

12.- Sinatzaileek konpromisoa hartzen dute konfidentzialtasuna bermatzeko, erakunde laguntzailearen barne informazioari dagokionez, eta sekretu profesionala gordetzeko. Beraz, ez dute hitzartutako praktikatik lor dezaketen daturik jakinaraziko edo inoren esku utziko, ez praktikak hasi aurretik, ez praktikak egin bitartean ezta amaitu ondoren ere.

13.- Nolanahi ere, aldean eskubideei eta betebeharrak dagokienez, Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko UPV/EHUko Arautegiak ezarritakoa bete beharko da.

14.- (Hala badagokio) Laguntza poltsa guztira: €
Erakunde laguntzaileak ezarritako kopurua zuzenean ordainduko dio ikasleari, egokitzen jotzen dituen bitartekoen bidez eta dagozkion zerga betebeharrak bete beharko ditu.

Eta hau guztia sinatzen da,.....(e)n, 20.....(e)ko(a)ren (e)(a)n.

UPV/EHUko ikaslea
(Sinadura)

UPV/EHUko tutorea
(Sinadura eta zigilua)

Erakundeko instruktorea
(Sinadura eta zigilua)

Soilik laguntza poltsa badago

PPA edo, hala badagokio, tituluaren
praktiketako arduraduna

(Sinadura eta zigilua)

Erakundearen arduraduna

(Sinadura eta zigilua)

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOETARA KO ARAUAK

APA arauak (www.apastyle.org/)

Adibide batzuk:

Liburuak:

Martínez Reguera, E. (2007). Con los niños no se juega. Madril. Editorial Popular.

Artikuluak:

Caride, J.A. (2003). Las identidades de la Educación Social. *Cuadernos de Pedagogía*, 321, 48-51.

Quiroga, V. eta Soria, M. (2010). Los y las menores migrantes no acompañados/as: entre la indiferencia y la invisibilidad. *Educación social: revista de intervención socioeducativa*, 45, 13-35.

Interneteko argitalpenak.

Fernández de Sanmamed, A. eta López, R. (2011). Toni Julià: Espainiar estatuko talde profesionalaren erreferentea. *RES, Revista de Educación Social*, 12 [www.eduso.net/res/pdf/12/tjref_res_12.pdf, 2011/10/11n kontsultatua].